



SOINU ATADIA

Leioako Udalaren Erakunde

Autonomoa

2020ko AURREKONTU OROKORRA

UDALBATZAK LEHENDABIZIZ ONARTUA 2019/12/19

- BAO 244, 2019/12/23

JATORRIA: 1984ko otsailean, Leioako Udalak erabakitzen du “Soinu Atadia” Zerbitzuko Fundazio Publikoa (aurrerantzean, Fundazioa) sortzea, musika esparrurako, udalerri honen barruan. Hori guztia Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 85.3.b) artikuluekin, eta aplikatu ahal zaion guztian, horrekin bat datozen apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretuko artikuluekin ados.

HELBIDE SOZIALA Leioan dauka, “Udal Musika Eskola” izeneko eraikinean, Iparragirre 76n.

IZAERA: berezko izaera juridikoa dauka Fundazioak, baita gaitasun juridiko osoa ere bere eskumenen esparru barruan jarduteko. Bere Estatutuek eta esparrukoa legeriak arautzen dute funtzionamendua.

Bere **HELBURUA** musika irakaskuntza da, baita musika kultura eta bere adierazpide desberdinak sustatu eta zabaltzearekin lotuta dauden jarduerak ere.

Fundazioaren gobernu eta administrazioa **KONTSEILU ARTEZKARIARI** dagozkio.

Zer da AURREKONTUA?


- Soinu Atadia Erakunde Autonomoak, hurrengo ekitaldirako espero dituen baliabideak, diru-sarrerak, aztertzen dituen agiria da, eta bertan, zertan gastatuko diren ezartzen da.
- Aurrekontua onartzea Udalbatzaren eskumena da (Kontseilu Artezkariak onetsi ondoren), Udal Organo gorena, udal hauteskundeetan hautatutako zinegotzi guztiek osatzen dutena. Leioan, 21 dira.
- Urte natural bateko iraupena du hasiera baten, hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Luzatu ahal da. 2020ko Aurrekontua, 2019ko abenduaren 19an, Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu egin zen.

UDAL AURREKONTU BATERATUA

Udal Aurrekontu Bateratuak Udalaren aurrekontu zuzena eta bere mendeko erakundeenak hartzen ditu barne (tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresak, erakunde publikoak, merkataritza-sozietate publikoak eta fundazioak), Udal partaidetza garrantzitsua denean.

ERAKUNDEA	ERAKUNDEAREN AURREKONTUA GUZTIRA (€)	UDALAREN PARTAIDETZA ERAKUNDEAN
Leioako Udala	39.006.398,63	%100
Soinu Atadia	2.319.046,59	%100
Euskararen Erakundea	1.186.287,66	%100
AURREKONTU OROKORRA (BATERATUA) (*)	40.562.236,66	

2020ko Aurrekontuaren datuak



(*) Aurrekontu Bateratua kalkulatzeko barne transferentziak deskontatzen dira.

DIRU-SARREREN AURREKONTUA



DIRU-SARREREN Aurrekontua

Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak, gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera.

3. KAPITULUA

Tasak eta beste diru-sarrera
batzuk


625.269,33€

4. KAPITULUA

Ohiko Transferentziak

1.693.777,26€

GUZTIRA: 2.319.046,59€



DIRU-SARREREN kapituluaren azalpena



3. KAPITULUA: TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK 625.269,33€

Herritar edo enpresei udal zerbitzu desberdinak emateagatik, Fundazioak batzen dituen diru-sarrerak.

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (€)
Material didaktikoa	19.822,74€
Hasierako kurtsoa II. maila	20.370,14€
II. Mailako modulua	191.792,36€
II. Mailako 3º eta 4º indartuak	64.360,06€
III. Mailako modulua	72.487,19€
Erdi mailako Logse 1º, 2º eta 3º zikloak	211.470,26€
Musikoterapia	7.420,86€
4º mailako eskola	3.427,72€
Musika tresnen alokairua	750,00€
Ikasleen itzulitako ordainagiriak	10,00€
Ustekabeko sarrerak	2.769,00€
CD salmentak: Sarrerak	2.000,00€
Lehiaketak eta beste batzuk	1.300,00€
Kontzertuen diru-sarrerak	25.000,00€
Eskola aseguruaren aportazioa	2.289,00€
GUZTIRA	625.269,33

DIRU-SARREREN kapituluaren azalpena



4. KAPITULUA: OHIKO TRANSFERENTZIAK 1.693.777,26€

Batez ere, Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenak zentroko jarduera aurrera eramateko.

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (€)
Lurraldeko enteen diru-laguntza	475.000,00€
Leioako Udalaren diru-laguntza	1.218.777,26
GUZTIRA	1.693.777,26€

GASTUEN AURREKONTUA



GASTUEN AURREKONTUA



Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak, gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera.

1. KAPITULUA

Langile gastuak

2.052.333,58€

2. KAPITULUA

Gastuak ohiko ondasun eta zerbitzuetan

234.613,01€

4. KAPITULUA

Ohiko transferentziak


23.000,00€

6. KAPITULUA

Inbertsio errealak

9.100,00€

GUZTIRA: 2.319.046,59€



GASTUEN KAPITULUEN AZALPENA



1. KAPITULUA: LANGILE GASTUAK 2.052.333,58€

Zentroko langileen ordainsariak eta pertsona horiekin lotutako beste gastu batzuk (Gizarte Segurantzaren kotizazioak...).

Soinu Atadiak 51 langile ditu.

2. KAPITULUA: GASTUAK OHIKO ONDASUN ETA ZERBITZUETAN 234.613,01€

Ondasun kontsumigarri edo fundazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzuetan egindako gastuak (energia, ura, ordezeko piezak, adituen zerbitzu profesionalak, azpikontratazioak...).

Energia- hornidura	10.000,00€
Arte ekintzak	8.743,01
Cesar Uceda lehiaketa	10.000,00€
Arte proiektu bereziak	22.000,00€
Garbiketa	74.000,00€
Itundutako zerbitzuak	11.000,00€

GASTUEN AURREKONTUEN AZALPENA



4. KAPITULUA: OHIKO TRANSFERENTZIAK 23.000,00€

Ikasleek matrikula ordaintzeko zentroak eskaintzen dituen bekak. Urteroko deialdi publikoa.

6.KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK 9.100,00€

Fundazioak, batez ere, material inbentariagarria erosteko jartzen duen diru-kopurua.